


# ...eta Kitto!

729 zkia. 2010-VII-9

ASTEKARIA

TOKIKOM



## Eibartar MUNDIALAK


RY TEAM NEEDS

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak  
Gremioen koordinazioa etab.



**JORGE VEGA S.L.**  
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23  
jorgevega.eibar@gmail.com jvega@jorgevega.es




**ORTODONTZIA**  
odontologiaren  
espezialitate bat da,  
zeinak masailezurren  
eta bertan dauden  
hortzen aldakuntza  
morfologikoen,  
garapenarekin lotutako  
eta posizioarekin  
zerikusia dutenen  
ikerkuntza, prebentzioa  
eta zuzenketa  
ahalbidetzen duen.

#### ESPEZIALITATE HONEN

helburu nagusia, aho-zuloan gertatzen diren oklusio edo hersketa okerrak zuzenduta funtzionaltasunaren berrezarketa da, etorkizunean gaitzak agertzea saihesteko helburuarekin.

Ortodontzia eta ortopedia tratamenduen oinarrian bracket-ak (aparatu finkoak) edo/eta aparatu funtzionalak daude. Oklusio okerraren laztasunaren arabera, aparatuak erabili beharreko denboraren iraupena luzeagoa edo laburragoa izango da. Hala ere, kontuan izan behar da ortodontzian eman diren aurrerapauseoi esker tratamenduen iraupena gero eta laburragoa dela. Ortodontziari esker lortutako emaitzak estetikoak dira eta hortzen jatorrizko posizio egokia berreskuratzea ahalbidetzen du. Gure helburua beti ere jatorrizko hortzei eustea da, baita periodontalki korapilatsuak diren kasuetan ere; horrelakoetan, ortodontzia tratamenduak odontologiako beste berezitasun batzuetan


erabiltzen direnekin bateratzen ditugu, elkarrekin erabiltzeko. Berezitasun hau, bestalde, garrantzi handikoa da disfuntzio fonetikoak zuzentzeko orduan eta hainbat kasutan tratamenduetan



**LEHEN**

logopedarekin batera, elkarlanean jarduten da. Ez dugu ahaztu behar aho osasuntsua izatea osasun, ongizate eta edertasunaren sinonimoa dela. Gero eta gehiago dira gure kontsultara funtzionaltasun eta estetika bila gerturatzen

zaizkigun helduak. Horregatik, Irazabal Hartz Klinikari eskaintzen ditugun tratamenduak umeentzat (prebentiboak eta eragoztekoak) zein helduentzat (zuzentzekoak), adin tarte bakoitzaren premietara egokitutakoak



**ONDOREN**

dira. Helduen kasuan estetikaren faktoreak duen garrantziarekin ohartuta, ikusten ez diren bracket estetikoak darabilen ortodontzia tratamendua eskaintzen dugu. Horregatik guztia eragatik, ortodontzia tratamenduen

inguruan izan dezakezun edozein zalantza gurekin kontsultatzeko dudarik ez izan, gustura hartuko zaitugu, beti ere gure aholkua zuri emateko prest. Gure kontsultara etorrita, lehenengo bisita doan eskaintzen dizugu eta bertan



**LEHEN**



**ONDOREN**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

**“ORTODONTZIAK ESTETIKA  
ETA FUNTZIONALITASUNA  
LOTZEN DITUEN EMAITZA  
ESKANTZEN DU”**



**ANTONIO MURILLO** doktorea



**AINHOA ZULUETA** doktorea

## Tratamendu aurreratuenak Irazabal Hartz Klinikari

diagnostikorako zein tratamendurako plana emango dizugu, inolako konpromiso barik. Gure prezioak arrazoizkoak eta aurrekontuak itxiak direla ikusiko duzu eta, gainera, ordaintzerako orduan erraztasun guztiak eskainiko dizkizugu.

Garrantzitsua da zure ahoa zaintzeko biderik egokiena prebentzioa dela gogoan izatea, eta ortodontzia tratamendu egokiari esker aho-osasunarekin lotutako arazo asko saihestu ditzazkezu etorkizunean.

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekararen E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76**AZALEKO ARAGAZKIA:**

Alex Zuazuak lagata

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)*

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**GERUN.-** Begietako gaitza, lausoa. Gaztelerazko 'catarata'. "Beti ezagutu detsaraz gerunak begixetan".**GEZAL.-** Itsasadarreko ur geza. "Berriatun gezala, Ondarruan kresala".**GIBEL-HAUNDI.-** Patxada haundikoa, lasaia. "Halako gibel-haundirik ez dot ezagutu bizixan".**GIBELA(K) EUKI.-** Oso patxada handikoa izan. Normalean pluralean erabiltzen da. "Horrek dauikaz gibelak! Andria urkatzen lanian eta bedori tabernan".

## ESKUTITZAK

### UDALBILTZA ETA EUSKAL HERRIAREN ALDEKO MANIFESTAZIOA BILBON

Udalbiltza -Euskal Herriko Udalen eta Udal Hautetsien Biltzarra- nazio-instituzioa zazpi lurraldeetako ia 1.800 udal hautetsik sortu zuten 1999ko irailaren 18an Bilboko Euskalduna Jauregian. Bere helburuak gauzatzeko aldera, hamaika ekimen bultzatu, sendotu, babestu eta aurrera atera izan ditu azken ia hamaika urteotan.

Oztopoz jositako ibilbidea izan du, horien artean nabarmenena 2003an, Madrilgo Auzitegi Nazionalak aginduta, erakunde nazionalaren aurkako polizia operazioa. Operazio horren aurrean, udal hautetsi, ordezkari politiko, sindikal, kultural eta sozial asko eta anitzek, milaka herritarrekin, eraso salatu zuten Bilboko kaleetan "Bai Udalbiltzari, bai Euskal Herriari!" lelopean.

Orain, zazpi urte geroago, Udalbiltzaren aurkako epaiketa dator. Fiskalaren zein herri-akusazioaren eskaerak, hautetsi eta langile izan diren 22 lagunentzako, 10 eta 23 urte bitarteko espetxe zigorrera heltzen dira. Eta Udalbiltza erakundearen behinbetiko ilegalizazioa eskatzen da.

Udalbiltzako hautetsi eta langile ohien aurka Madrilgo Auzitegi Nazionalen eramatzen diharduten auzibidea irmoki salatze eta estatuko gobernuaren fiskal nagusiak gaur egun eusten diharduen akusazio publikoa erretira dezala eskatzeko **manifestazioa egingo da uztailearen 17an, 17.30etan hasita**, Bilboko La Casillatik udaletxe-raino. Hor izango dugu aukera injustizia hau salatze.

**EIBARKO EZKER ABERTZALEA**

### OHARRA

Datorren asteakoa (hilaren 16koa) izango da opor aurretik kaleratuko den azken zenbakia. Hori dela-eta, hurrengo asteetako berririk edo zorion agurrik kaleratzea nahi izanez gero, kontuan izan hor izango duzuela azken aukera. Barkatu eragozpenak.

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Zirkuluan mugitzen gara benetan esan nahiko genukeenaren inguruan, benetan esan nahiko genituzkeen hitzak mingaina erreko baligute bezala. Irits daiteke une bat non gure ingurukoak guztiz despistatu ditugun, hainbeste, ezen ez baitakite nor garen. Irudipena daukat gure egia intimoenekin lurperatuko gaituztela gu guztiok"

*(Eider Rodríguez, kazetari, gidoiari eta idazlea)*

"Gurdia eta gorpila asmatu zirenetik, lau edo bost mila urtez, estankatuta egon gara; teknikaren estabildade horri esker garatu da pentsamendu klasikoa. Orain, teknika ezin kontrolatuz nola gabiltzan, pentsamenduak eta poesiak ez dute lekurik izango zibernetika hau estabildade izatera heldu arte. Mezu galdu egiten da teknikaren sofistikazioan"

*(Patziku Perurena, idazlea)***EIBARKO  
UDALA****GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA****EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO****KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)****Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria**

## autuan

### EL CORTE INGLESEKO TERRAZA

El Corte Inglesek terraza ireki du gaur 3. pisuan aisialdi ekintzetarako. Udara begira eraman dute aurrera ekimen hau eta udako eguraldi ona aprobetxatzea da helburua.

### ARRATEKO TXOSNAK

Arrateko Jaietan txosna ipini nahi izanez gero, uztaillaren 16ra arte egongo da eskaera egiteko epea Pegoran (13.30ak arte). Bileraga eguna eskaera guztiak jasotzean zehaztuko da. Txosna kopurua eta neurriak, bestetik, dagoen tokiaren arabera emango dira.

### LIP DUB GRABAKETA BERRIA

Euskarazko I. Lip Dub Lehiaketak martxan jarraitzen du oraindik eta eguaztenean, San Fermin egunean, grabaketa berria egin zen Untzaga eta Txaltxa Zelaian. Ahotsak.com-eko kideek egin zuten grabaketa eta euren lana egun gutxitan egongo da ikusgai [www.youtube.com/eibarorg](http://www.youtube.com/eibarorg) webgunean. Azken lan honez gain beste lau lan aurkeztu dira, eta uztaillaren 19ra arte dago epea zabalik. Guztira 6.000 euro banatuko dira sarietan.



## Autobusetan aldaketak, beharren ondorioz

### EUSKO TREN-EN HAINBAT AUTOBUS LINEAREN IBILBIDEAK ALDATUTA DAUDE ASTE HONEZ GEROZTIK,

Ego Gain kale inguruan egiten diharduten beharrak dirrela-eta. Izan ere, kalea itxita dago beharren ondorioz eta abuztuaren amaiera arte hala egotea dago aurreikusita. Horregatik, autobusek ohiko ibilbidea aldatu egin behar izan dute, kalea itxita egotean Untzagaraino sartzerik ez dute-eta. Beraz, autobusek lehenengo bira Saihetsan hartuko dute, San Andres pasealekuk aurrera egin eta Valenciaga lantegia egon zeneko aldapan gora, euren ibilbidearekin jarraituko dute. Horrez gain, San Agustin zeharkalea ere itxita dago, lurzorua aldatzeko beharregatik eta Eusko Trenek azaldu duenez, "uztaillaren 10etik aurrera eta besterik esan arte, Mallabia-Ondarroa eta Ermua-Azpeitia autobus-lineen ibilbidea aldatu egingo da Eibarren asteburuetan: Untzaga geralekuaren ondoren (taxi geltokiaren aurrean) saihesbidera sartuko da Azitaineraino heltzeko, Geltoki kaletik sartu gabe, eta horrela, Iparragirreko bide berriaren aldamenen egingo da geraldia, On-



Abuztuaren amaiera arte egongo da itxita Ego Gain kale ingurua. / EKHI BELAR

darroara heldu ahal izateko errotonda berean bira eginez". Horrekin batera, Bideberrietako geralekua Azitainen kokatuko da.

### Trenbidea moztuta zapatu gauean

Bestalde, uztaillaren 10etik 11rako gauean Ermua-Ardantza tartean trenbidea moztuta egongo da beharregatik eta, ondorioz, tren bidezko zirkulazio erregularra bertan behera geratu eta Ermua eta Eibar bitarteko zerbitzu osoa autobus bidez eskainiko dute.

## LABeko ordezkarien protesta

### AURREKO ASTEKO EGUENEAN BATZARRA EGIN ZUTEN METALEKO LAB SINDIKATUKO



ADEGIK egin nahi dituen murrizketak salatu zituen LAB-ek eguneko agerraldian. / EKHI BELAR

### ORDEZKARIEK, ARMERIA ESKOLAN, eta bilera amaitu ondoren Azitaingo industrialderaino oinez jo-

an ziren, JAZ Zubiaurre enpresa parean agerraldia egiteko. Metalgintzaren hitzarmenaren harira, sindikatuko ordezkariak ADEGIK egin nahi dituen murrizketen aurkako hainbat ekimen gauzatu dituzte azken hilabetean eta, eskualdeko ordezkariak Eibarren elkartu zirela aprobetxatuta, ADEGIko presidentea den Eduardo Zubiaurreren lantegi parean prentsaren aurrean agertu zuten murrizketen inguruan egiten duten irakurketa.


## San Pedroko konjurua Akondian

**DOMEKAN, ETA OHITURARI JARRAITUZ, AKONDIA BASERRIAN SAN PEDROKO MEZA ETA KONJUROA OSPATU ZUTEN** Mandiola bailarako eta inguruko bailaretako baserritar askok. Sinismena-

ren arabera, San Pedro ermitan urtero errepikatzen duten errituari esker ekaitzak eta txingorak uztetatik uxatzen dituzte, jasotzeko prest dauden sasoi honetan hondatu ez daitezen.



# auzoric auzo



## Ikasturte amaiera La Sallen

**LA SALLE AZITAIN IKASTETXEKOEK IKASTURTE AMAIERAKO AGUR EKITALDI BEREZIA OSPATU ZUTEN**, urtero egin ohi duten moduan. Argazkietan ikusten dituzuenak Batxilergoko eta 6. Mailako ikasleak dira, ikasturtea pozarren agurtzen. Bestalde, Irakaskuntza Sustatzeko Elkargoak (ISE) eta La Salleko zuzendaritzak 2009-2010 ikasturteko ikasleak zoriondu nahi ditu, lortu dituzten emaitzengatik; horrekin batera, ikastetxeko beharginei, familiei eta IGERi eskerrak eman nahi dizkiete eta opor zorionsuak igaro ditzatela opa diete.



## Merkatuko zozketako irabazleak

**ERREBAL MERKATU PLAZAKO DENDARIEK EKAINAREN 29-AN EGINDAKO ZOZKETAN** Geli Santiagok irabazi zuen sari nagusia (200 euroko erosketa-txartela). 25 euroko txartel bana irabazi dutenak, berri, jarraian aipatzen ditugunak

dira: Josefina Argoitia, M<sup>a</sup> Rosa Aranburu, Aurori Alonso, Ana Belén Sologaitua, Arrate Martínez de Lejarza, Josefa Mangana, Antonia Vila, Victoria Esteban, Arrate Unzetabarrenetxea, Pilar Rabadán, Nerea Urionaguena eta Merche Muñoz.



## San Kristobalگو jaiak bete-betean

Gaur arratsaldean abiatuko dira jaiak San Kristobalen, ekitaldira gonbidatu duten Felix Elkoroiribe Zerbitzuetako teknikari ohiak txupinazoa botatzearekin batera. Hortik aurrera eta domeka gauerarte ez da atsedunik izango parrandan ibili nahi duenarentzat, auzoko jai batzordeak antolatutako egitarauari esker. Gainera, ohikoa den moduan, asteburu honetan ere ospatuko den Lambretta motorren kontzentrazioko antolatzaleekin elkarlanean jardun dute eta, horri esker, besteak beste, gaur gauean Queen festa pantaila handian jarraitzeko aukera izango da, jarraian La Guardia taldeak eskainiko duen kontzertua hasi bitartean.

Aurten, gainera, San Kristobal egunak jaiekin bete-betean egingo du, bihar baita gidarien zainzaileari Elizak eskainitako eguna. Ekitaldiak goizetik abiatuko dira, umeendako joko eta bestelakoekin. Eta domekan, bakailao txapelketaren ondotik aurten omendu nahi izan duten auzokideari eskainitako ekitaldi berezia ospatuko dute. Ega-Zelai baserria izango da omenaldiko protagonista. Jaiak 21.30ak arte jarraituko du.


## eibar kalea

### Gisastu Bide kalea

Herriaren beheko aldean, Urkizutik Txontarako sarreran ezkerreko aldean dagoen kaleak darama Gisastu Bide izena. Gisastu izenari buruzko erreferentzia Juan San Martinen "Eibar eta Elgetako Toponomastika" liburuan jasota dator, XVIII. eta XIX. mendeetaraino atzera egin eta baserri-izen modura.

**Pegora kopurua: 1.**

**Erroldatutakoak: 69.**



asteko

40

datua

aldiz joaten dira urtero sendagilearengana. Paziente guztietatik %12 dira abusatzen duten horiek, kontsulten denboratik %60 hartzen dutenak. 40tik 15 beharrezko izatea onartuta ere, soberako bisita horiek ataskoa sortzen dutela anbulatorioetan dio Juan Sánchez Vallejo mediku eta idazleak.

## 11.000 poltsa berrerabilgarri

**INGURUMENAREN GAIAREKIN KONTZIENZA PIZTU ETA PLASTIKOZKO POLTSEN ERABILERA MURRIZTEKO ASMOZ**, 11.000 poltsa berrerabilgarri banatuko dituzte Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak. Herriko buzoietan ingurumenarekin lotutako gaien gaineko informazio-liburuxkak banatuko dituztela aurreratu dute aste honetan bertan eta liburuki horietan, poltsa ekologikoengatik trukatzeko txartela aurkituko dute herritarrek. Txartel horiek moztuta, Pegorara edo Eibar Merkataritza Gune Irekiari atxikitutako dendetara jo beharko da poltsak eskuratzeko. Gaiz-

ki-ulertuak saihesteko, *“txartel barik poltsarik banatuko ez dela”*, azpimarratu zuen Mertxe Garate zinegotziak.

Poltsa marroi kolorekoa da eta *“Dame vida-Emoidazu bizia”* leloa darama idatzita. Eibar Merkataritza Gune Irekiari atxikitutako dendek, gainera, poltsa berrerabilgarriak erabiltzen dituztenak sarituko dituzte erabiltze soilagatik. Kanpaina abendura arte egongo da martxan. Jesus Rementeria Ingurumen zinegotziaren berbetan, *“ekimen honen bitartez 300 kg hondakin eta 200 kg CO2 gutxiago sortuko dira”*. Poltsak 50 bat al-ditan erabiltzeko modukoak dira.




## Urteetan atzera bizikletan

### DOMEKAN CICLO CLÁSICA IZENBURUPEAN ANTOLATUTAKO EKIMENAK 10 BIZIKLETA KLASIKO BATU ZITUEN GUREAN.

Lehenengoz antolatutako topaketak aintzinako bizikleten jabeak erakartzea zuen helburu, batez ere horietako asko Eibarko fabriketatik irteerakoak izan daitezkeelako. Izan ere, bizikleta produkzioari begira, Eibar puntaren puntan egon zen estatu mailan, XX. mende hasieran armagintzak izan zuen krisiaren aurrean askok bide horri jarraitzea erabaki zuelako. GAC, BH eta Orbea izan ziren garrantzitsuenak, batez ere behargin asko zituztela-

ko, baina ez bakarrak. Antolatzaileen deialdiari erantzunez, Guadalajara, Madril, Zaragoza, Errioxa eta Bizkaiko parte-hartzaileak batu ziren domekan, eurekin bat egitera animatu zen eibartar bakarrarekin batera. Kanean ikusgai egon ziren bizikletek jende asko erakarri zuten eta ikusmin handia eragin zuten. Besteak beste 1895. urteko Columbia (Ingalaterran egina), Motobecane bat eta Super Cil bat ikusteko aukera izan zuen jendeak. Parte-hartzaileek, bestalde, Museo eta bizikleta fabrika garrantzitsuenak egon ziren tokiak bisitatu zituzten, elkarrekin bazkaltzera joan aurretik.



## Armeria Eskolaren logo berria

### ARMERIA ESKOLA SORTU ZUTELA 100 URTE BETEKO DIRA DATORREN URTEAN, 2012-AN,


baina honezkero mendeurrenari begira beharrean hasita daude. Ezer baino lehen, ospakizun horren inguruko irudia aukeratzeko lehiaketa ipini zuten martxan orain hilabete batzuk eta eguaztenean eman zuten ezagutzera lehiaketako lehen saria eskuratu duen logotipoa: Nicolás Vázquez López bilbotarrak sortutakoko *“Gatillo”* izenburuko diseinuak irabazi du lehiaketa. Lanak Armeria Eskolaren inzialekin, *“A”* eta *“E”* letrekin jokatzeko du, biak erabilia suzko arma baten kol-

pekarria irudikatuta. Mendeurreneko logoa aukeratzeko lehiaketan zazpi partaidek jardun dute lehiari eta epaimahakideek Nicolás Vázquez ez ezik (1.000 euro) beste lan biren egileak ere saritu nahi izan ditu: Elgoibarko Kinaka Designek eta Eibarko Nestor Pérez Valenciagak 300 euroko akzesit bana eskuratu dute.

Jose Luis Novoa Armeria Eskolako zuzendariak eguazteneko sari banaketan adierazi zuenez, *“logo berriaren atzean eskolarentzat estrategia berri bat dago. Mendeurrenarekin hasi eta jauzi kualitatibo emango dugu, muga berriak gaindituta”*.

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN  
BIDE**



**AUTO  
ESKOLA**




**ORDUTEGIA:**  
09.30-13.00  
15.30-20.30

**GIDA-BAIMENAK**



San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
**EIBAR**



**Azkenengo EGUNAK!**



**...eta kitto!n SALGAI  
(Urkizu, 11)**

**Pasa-falta:**

- Nagusiak, 26 euro
- Umeak, 20 euro

**Rugbi:**

- Nagusiak, 26 euro

**...eta kitto!:**

- Nagusiak, 20 euro

**Kamisetak SALGAI**

**Klase eta azterketak amaitu ostean, udako oporrek denbora libre eskaintzen die gazteei. Aisialdirako aukera ez da falta, baina ikastaroekin urte osoko martxari jarraitzea aukeratzen dute askok. Autoa gidatzeko baimena ateratzeko sasoia dela iristen diote hainbat gaztek.**

## Autoeskolak, UDAN GAZTEAGO



**K**arpeta eta boligrafoarekin dabilta gazteak. Uda da, baina ez dituzte ikasketak amaitu. Autoan nola ibili behar den eta zein arau bete behar dituzten ikastera doaz autoeskolara. Gaztetu egiten dira autoeskolak urteko sasoi honetan, gazteek denbora libre gehiago dutela-ko batik bat. **Solozabal Autoeskolako** Loreak hori baieztatzen du, "sasoi honetan gazteak dira gehiengoa eta urtean zehar pertsona nagusiagoak datoz".

Autoeskolak, hala ere, ez dute aparteko sasoi bizi. Zergatik? Arrate, Zezenbide eta Solozabal autoeskolakoek iritzi bera daukate: "Krisi ekonomikoa". **Arrate Autoeskolako**en berbetan, "egoera oso kaskarra da, krisia oso sakona baita". Bere iritzi, hala ere, "hemen dirua badago, hemen ez dago estatu espainiarrean dagoen langabezia indize altua, baina jendeak dirua gastatzeko beldurra dauka".

Solozabaleko Loreak dienez asko nabaritu izan da krisia. "Iaz uztailerako jendea itxaroten geneukan sartzeko, eta orain ez da horrela, ezta gutxiago ere". Lorearen ustetan ere krisia da egoeraren eragilea. "Lehen gazteek uda partean lan egiten zuten autoeskola ordaindu ahal izateko, baina orain lan asko ez dagoenez hori ezinezkoa da".

**Zezenbide Autoeskolako** Jacintok ere egoera berbera deskribatzen du. "Iaz bai-

no %15 baino ikasle gutxiago ditugula esango nuke. Gainera, udan gazteak gehiago dira ikasleen artean, baina ez da gehiegi igartzen ere". Ikasle kopuruaren jaitziera hau urte osoan ematen ari dela dio Jacintok. Eragileak? "Krisia, jaiotza-tasa baxua... hori pentsatzen dut".



### Garestia ala ez?

Krisi ekonomikoa gain beste kasu bat azpimarratzen du Arrate Autoeskolako arduradunak. "Gidatzeko baimena lortzea oso garestia da". Bere berbetan Gipuzkoakoa da Espainiako garestiena, eta horri jendeak gaur egun duen erosteko ahalmen urriagoa gehitzen bazaio, jaitziera ikusten da autoeskoletan izena-ematen dutenen zerrendan. "Asko eta askok, hala ere, izena emanda dute, baina ez dute ezer egiten ezin dielako aurrerago datoen gastuei aurre egin".

Zezenbideko Jacintoren ustez, bestetik, garestia den edo ez esatea nahiko erlatibo da. "Autoeskolak gastuak ditu eta horiek betetzeko ipinitako prezioak dauzkagu. Noski, dirua ere irabazi behar dugu, bestela negozioa itxi beharko genuke". Zentzu honetan, hau azpimarratzen du: "Aurten iazko prezioei eutsi diegu, baina kontuan izan be-

har da ikasleek atentzio pertsonalizatua behar dutela eta horrek dakartzan gastuak altuak dira".

### Uda, sasoi aproposa?


Jacintoren ustetan uda ez da momenturik aproposena gidatzeko baimena ateratzeko. "Jende gehiagok ematen du izena orain eta horrek esan nahi du irakasle batek ikasle gehiago izango dituela bere esanetara, horrek dakartzanarekin: arreta gutxiago eskaintzea ikasle guztiei, estres gehiago, itomena... Jendeak bizkor atera nahi du karneta, baina denbora behar da, beraz, nire ustez hobe da urtarrean edo otsailean egitea".

Udan dagoen eguraldi onak eta egunak luzeagoak izateak jendea anima dezakeela pentsatzen du Solozabaleko Loreak, "baina ez da oso garrantzitsua. Baliteke uda aldean jende gehiago apuntatzea praktikak egiteko, baina ez da oso nabaria".

### Ikastaro intentsiboak

Jacintok aipatu bezala, jendeak bizkor atera nahi du gidatzeko baimena, eta horretarako eskaintzen dira orain ikastaro intentsiboak. 5, 6 edo 10 egunetan modu trinkoan ikasi ostean azterketara doaz ikasleak, eta Loreak dienez emaitzak oso onak dira. "Ikasleen %99ak gainditzen du azterketa". Zezenbidekoak ere iritzi bera du, baina horrela ikasitakoa errazago ahazten dela dio. Hala ere, jende gehiago erakartzen du sistema berri horrek.


Arrate Autoeskolako berbetan, hala ere, sistema hau "iruzurtia" da. "Klaseak jaso ostean azterketara zoazen paper bat sinatu behar duzu. Eta zerbait gertatzen bazaizu eta prest ez bazaude, edo dena delakoa? Hona edonor etor daiteke astean 6 egunetan, nahi dituen orduak egin eta nahi beste test, inongo konpromiso barik. Erreklamu hutsa dela deritzot".





*Gidatu ahal izateko gehixenezko adiña ipintzeko eztabaldia egon da azken aldixan, baiña DGT-ko Anna Ferrer-ek esan dabenez, pertsona bakotxak ikusi biharko dau noiz ez dan gai autua gidatzeko. Holan, ez da mugarik egongo, momentuz, adiñari dagokixonez autua gidatzeko.*

## Gidatzeko adin mugarik ipiñiko zenduke?



**LOLA GONZALEZ**  
32 urte  
bihargiña

Begittantzen jata kontuan hartu bihar dana bakotxaren egoera fisikua dala, bakotxak autua gidatzeko dakan ahalmenari. 40 urteko bat 80 urtekua baiño kaxkarra go egon leike; holan, adiñak ez daka garrantzirik zentzu horretan, baiña pertsoniaren egoeriak bai.



**JOSE ALBERTO LANAS**  
61 urte  
dendarixa

Begittantzen jata ez dala urtieri bakarrik begiratu bihar; bakotxaren zentzu eta habilitadiak hartu bihar dirala kontuan. Pertsona bakotxa zelako egoerian dagan begirau bihar da. Gaiñera, ikusi dodanez, zenbat eta nagusixago, orduan eta kontu haundixaga dakela autuakin.


**BENEDICTO ARNAIZ**  
81 urte  
jubilaua

Autua erabiltzen dot oindiokan. Alacanten egoten naiz urtian gehixena eta ibiltzen naiz, umien billa eskolara juateko eta abar. Pentsatzen dot mugia bakotxak ipiñi bihar dabela. Zeiñek esaten detsu ni baiño gaztiagua dan bat txartuago ez daguala? Ez da adiñaren arabera erabaki bihar.



**INES BLÁZQUEZ**  
58 urte  
etxeoandria

Ez dakitt, neretako pertsoniaren arabera ipiñi biharko zan mugia. Badago jendia 60 urtekin 40kuak baiño hobiago daguazanak. Bakotxak ikusi bihar dau zelan dagan autua gidatzeko. Nik ez dakt gidatzeko baimenik, baiña holan pentsatzen dot.



**KATU**  **KALE**  
BIDEBARRIETA, 1 **TABERNA**

 **publi resa**

- Pin-ak  
- Metxeroak  
- Kamisetak  
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta  
ENPRESETAKO OPARIAK

**Armagin 3 - behea**

☎ eta faxa: 943 70 14 97      Publi.resa@euskalnet.net

**IGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - behe, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del  
Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errousketa labea  
Egoiberran (Signo poligonar):  
Partikalar, nutu eta arguri enesi zerbitzuak  
Koroak - Eskelak - Urtumano eskelak  
Euskal Herri osoko ospitaleen hartze zerbitzu  
Nazio eta Nazioarteko Iratziak

**Mugica Ehorzketa**  
Ehorzketa labrea

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

Munduko edozein tokitarra juanda be, jendetza batzen daben jarduerarik aittatzekotan, seguruenik kirolarekin lotutako zeozer etorriko jako ahora bateri baiño gehixagori. Eta kirolaren barruan, foballa letra haundixekin idazten dala azaldu biharrik ez dago. Horregaittik, egunotan martxan dagan Hego Afrikako Mundialak populaziño gehixena erakartzen dabela esatian ez dogu gezurrik esaten. Baiña gehixenak telebisiño, irrati, egunkari edo internet bittartez segitzen daben bittartian, beste batzuk zuzenian bizi izateko aukeria izan dabe eta euren esperientziaren barri emon deskue handik bueltan.



## Kirola biajatzeko aitzakixa be bada

**B**aiña, zelan amaittu dabe 8 Eibartarrek Hego Afrikan, gure herriko koloreak jantzitta daroiazela? Taldeko kidieta-ko batekin, Oskar Berazarekin berba egin dogu eta berak kontau deskuz biajiaren gorabeherarik inportantienak: “Egixa esateko, neu taldiari batzen azkenetakua izan naiz, ipiñi biharreko dirua ipiñi eta askoz zeri-kusi gehixago ez dot euki abentura honen sorrerarekin. Izan be, biajia egitteko kontu guztia Ipuruan, Eibar foball tal-dia ikustera juaten ziranen artian pentsau eben aspaldixan.

*Partiduetan emozioño haundirik ez eguala eta berbetan jarduten eben eta, holan, erdi bro-metan erdi serixo, baten batek hurrengo foball mundiala Hego Afrikan jokatu zala bota, bes-tiak animau... eta holan hasi zan dana”.*

Hasieran animautakuen artian, arrazoi ezberdiñak bittartian, batzuk bidian geratzen juan dira, baiña halanda be gure herrixa ordezkatzeko talde politta osatzia lortu dabe, eta baita ondo ordezkatu be. Talde argazkixeri begiratu baiño ez da bihar horrekin konturatzeko.

Izan be, Mundialera juango ziralara erabagi ebenetik oso argi zeken zer nahi eben: “Azkenian foballarena aitzakixa izan da, benetan biajia egittera animau bagara Ciudad del Cabo eza-gutzeko gogua genkagulako izan da. Mundialarena animat-zeko beste arrazoi bat izan da, baiña ez inportantiena”. Eta holan, ekaiñaren 16tik 25era bittartian Hego Afrikan ibilli dira.

### Partido bittan

Halanda be, behiñ hara juanda, partidorek ez ikustia peka-tua litzakela argi ikusten eben

eta, sarrera bakotxak 15 euro kostautu, ba partido bittan egon ziran: “Portugal eta Ipar Korearen arteko norgehiagokan eta Camerun eta Holandaren arte-kan egon giñan eta oso ondo pasau genduan. Egixa esan bihar badogu, partido bixetan oso ondo pasau genduan, han dagan giruak ez daka zeriku-sirik hamengo edozein partidotan egon leikian giruarekin. Mundialera juandako jendia jai-xa bizi izatera juan da, koko-jantzitta ibiltzera, dantzan eta umore onian ibiltzera eta, bide batez, euren taldiari animuak emotera. Baiña jendia ez da hasarratzen partidua gora-behera edo emaitzarengaittik, estadixo baten barruan egonda be foballa ez zan inportantiena, oso bestelako girua egon da gu egon garan partido bixetan. Pentsau, garagardua saltzen eben estadixuan bertan eta ez dogu burrukarik edo bestelako gorabeherarik ikusi. Han da-guaz batzuk lagunak egittera juandakuak dirala ikusten zan, beste batzuk euren gogoko tal-diarekin batera erretratua etara nahi eben... pixkat denetarik topatzen zenduan”.

Biajia egitteko modua be berezi xamarra izan da, dana eura-antolatu dabelako: “Bueno, guk antolatu baiño gehixago, gutariko batek preparau dau dana. Jose Antonio “Txeo” Valencianok aurretik be bere kon-



Okasiño bakotxerako kamisetak eta bestelakuak eruan ditue eibartarrak.

tura atzerrira bidaiatzen jardundakua da eta berak hartu ditu hegazkiñerako txartelak, bertan egotian zer ikusi geinkian begiratzen ibilli zan aurretik, internet eta bestelakuak erabillita, lo egiteko tokixa be berak topau eban... benetan gidari aparta izan dogula esan bihar dogu”.

**Hiri modernua, Mundialarengaitik**

Ciudad del Cabo, “Europako edozein hiriburu moderno baten parekua” topau dabela azaldu desku Berazak: “Edificio haundixak, modernuak... denetarik daka, beste edozein hirik euki leikian moduan, Ferrari automobilak saltzeko dendia be parian tokau jakun, pentsa! Halanda be, argi dakagu

guk ezagutu dogun hirixa alde aurretik garbittuta eguala, ez dogu eskalerik ikusi eta iñork ez desku trabarik egiñ, baiña pentsatzen dogu bestela, Mundialaren aurretik eta amaitzen danian atzera be hiriburu peligrusua izango dala, beste hiriburu haundi askoren modokua”. Eta holan pentsatzeko pistak aldamenian euki dittue, eurak egon diran etxian bertan: “Hotel batera juan barik, han emon dittugun egunak etxe batian pasau dittugu eta hango etxe guztietan Rotweiller bana edo pare bat zeken eta hesi elektrifikauak ikusten genduzen. Guria 5 logela bikotzeko etxia zan, bakotxa bere komunarekin eta geu bakarrik egon gara, bertako gizon bik lagun-

duta. FIFAk, Mundiala dala eta, hotel gehixenak hartuta zittuan alde aurretik eta bertako habitaziñuak oso karuak dira, horregaitik kontakto batzuren laguntzarekin, internet bidez etxia alokau genduan, hamen nekazal-turismo bat alokatzen dan moduan. Eskursiñuetarako ideiak eta tramitiak, barriz, etxian eguazen lagun bixak egitten zeskuezen sarritan”.

**Tiburoiekin igarixan**

Turismua egitteko hartu daben tartian hamaika toki ezagutu dittue: “Lehelengo egunian teleferikuan igo giñan, hirixaren bista panoramikuarekin gozatzeko, furgonetan Cabo de Buena Esperanzara juan giñan, arrantzalien herri batian



pinguinuak eta fokak ikusi genduzen, trena hartu eta kostaldeko herrixak ezagutzeko aukeria izan genduan, safari batian egon giñan, marrazo zurixak gure inguruan igarixan euki dittugu, gu kaixola barruan guguazela”. Benetan esperientzia edarra izan dala argi laga desku, biajiaren irudixak oindio bizi-bizirik dittuala.

**Begixak Pirinioetara begira**

Foball Mundiala ez da urtero ospatzen eta bere inguruan piztutako ikusmiña apartekua da, horretan dudarik ez. Baiña foballaren ostian gurian zaletu mordia mugiarazten daben kirolik bada, argi dago bizikletarekin gogoratu bihar dogula derrigor. Oin dala egun batzuk abiatu zan Frantziako Tourraren inguruan mugitzen diran euskaldunak millaka kontatzen dira eta Eibartik be ez dira gitxi urtero edo ixa urtero etaparen bat zuzenian ikusteko aitzakixarekin Pirinioetara edo ingurua juaten diranak. Leire Kareaga holako espediziño bateko partaidia da eta, berak kontau deskun moduan, “bereziki zaletua ez banaiz be, nere gizona aspaldidanik juan izan da, haren aittaren pausuen atzetik.



Eibartik Tourrera urtietan juandako zaletuak txirindularixak noiz pasatuko diran zaiñ.

Honezkero hirugarren generaziñua be martxan dakagu”.

Kareagak 3 urtetan bizi izan dau Tourra zuzenian eta aurtan be urteroko taldia batu eta bertara juango dirala esan desku: “Izan be, txirindularitza gustau barik be, han oso ondo pasatzen dau jendiak. Karabanak eta kotxiak bide baztarrian apar-

kau eta geu be han ipintzen gara, karrete- ra aldamenian, arda botillarekin-eta, aldamenian daguzenekin tratuan hasten zara... oso ambiente politta egoten da”. Etapa eguna baiño pare bat egun lehena- go mendira juateko ohitturia izaten dabe, borda batera eta mendira, barriz, kanpiñakin juaten dira. Eta etapa eta etapa bitartian, eurak be mendi buelta batzuk egitteko aprobetxatzen dittue han emoten dittuen egunak: “Nere gizonak urte bittan Irunetik Lourdesera bittarteko bidia bizikletan egiñ eban, baiña aurtan ez dau holakorik egingo. Aubisquen egon giñan iaz eta aurtan, barriz, Hautacam-era juango gara”.



## Dentistak

odontologia  
biologikoa eta orokorra  
terapia neurala

miren albistegi sojo

IRAILETIK AURRERA  
arragueta, 2 - bis B erreal, 14  
t. 943 208 330 t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAIA**  
HORTZ KLINIKA

**ARAT Hartz Klinika**  
Hartz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura



Hortus, konpaleia eta konplikazio handienak hurrengo kontrola...

943 20 18 51

**bista eder**  
Infinisarrak gazteku egiten gaitu  
Inplante eta Hartz-Estetikak adituak



Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**  
Hartz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi  
Odontologia orokorra / Ortodontzia / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02  
**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak  
Hartz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

# OSASUN

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**

**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia



**Ortodontzia ume eta helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.marladoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO** RPS 336/05  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
hartz-klínika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**

**ERREHABILITAZIOA**



- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato*  
*Eibarrés*

**Errehabilitazioa**  
eta **Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

**EGUNERO** (08.00 - 19.30)

Tfnoak - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxa - 943 12 03 58

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa



Egunero, 6. behea - Telf.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

## Fisioterapia

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAGUETA, 20  
Tlf. 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI  
901 kolegiatu zbkia.


San Agustín, 2-4 - M lokala  
Tel. 622 14 58 58




**Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA**

- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Juan Gisasola, 14  
Telefonos: 943 12 70 78







# GIDA

## Kirol medikuntza

**KIROL MEDIKUNTZA**

**Indartu**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Esfortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASBAGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazioa, 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16  
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskatnet.net

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia

**HELVIDE BERRIA**  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**

## Psikologoak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria 10 - 6. ez. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

## Okulistikak

**OKULISTAK**

Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

**OKULISTAK**

EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuarte  
Tfnoa: 943 20 19 82

BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko Klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

UME ETA HELDUENDAKO  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA

**Arrate Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66  
a\_garitaonandia@terra.es

**Clínica Oftalmológica**  
**RECALDE**  
Oftalmología Clínica

Plaza Barría, 2 - 2º  
Tfnoa: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

**PODOLOGOA**

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

**Ψ**

Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

**Radiologia**

**MADINA RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak  
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ez. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu deitu 943-206776 telefonora

## Herriko judokak Tokiora entrenatzera

**25 EGUN EMANGO DITUZTE JAPONIAKO HIRIBURUKO JUDOKO KODOKAN INSTITUTUAN.** Hilaren 15ean abiatuko da haruntza Kalamua judo taldeko hirukotea: Nekane Muguruza jiu-jitsuko infantil mailako Espainiako txapelduinak, Eneko Lores maila bereko Euskadiko txapelduinak eta Manu Agirre gerriko beltza 7.



danak osatzen dute taldea. Aipatutako Kodokanen hainbat entrenamendu egingo dituzte, euren prestaketa hobetzeko, japoniarrekin eta beste herrialde askotako ordezkariarekin. Aurretik, baina, gerriko beltza eskuratzeko hainbat azterketa egingo dira bihar Logroñon eta han izango dira Kalamuako batzuk.



## Alex García, Eibar KE-ren lehen fitxaketa denboraldi berrirako

**BILBOKO JOKALARIA JAEN TALDETIK DATOR, AURRETIK SUTIL MODUAN,** eta ez da bakarria izango 2. A mailara igotzeko promozioan sartu zen Andaluziako taldeetik gure arteira etorriko dena. Iñigo Ros erdi-lariak ere Eibarrekin jokatu du hurrengo denboraldian (gaur aurkeztuko dute) eta biak izango dira, beste taldekide guztiarekin batera, hilaren 19an aurrendenboraldia hasteko. Lehenengo taldearekin hasiko da entrenatzen ere Mikel Abaroa filialetik datorren jokalaria. Taldeak jokalaria berrien bila dihar-


du, zehazki "atzelari polibalente bat, bandako beste bat eta aurrelari biren atzetik", Merino zuzendari teknikoaren esanetan. Eibar B-k, bestalde, Jokin López ondarratarra eta Aritz Martínez (Getxoko Arenas) fitxatu ditu aste honetan.

Uztailaren 26tik aurrera kontzentrazioa egingo dute Arantzazun eta, aurrendenboraldiko partiduei dagokienez, Ormaetxea Memorialean Reala hartuko dute Ipuruan, abuztuaren 11n, eta badute beste neurketa bat ere hitzartuta 17rako, orduko horretan Amurrian.



## Waterpolo 4. torneo Mutrikun

**HURRENGO ZAPATUAN, HILAREN 17-AN, WATERPOLO-HONDARTZA MODALITATEKO 4. TORNEOA** jokatu da Mutrikun, egun osoa iraungo duen lehiari. Hamar talde izango dira guztira aurtengo edizioan, eurretatik lau 1. maila nazionalerakoak eta Leioa mistoa. Estiu Gironi, Bartzelonako Unibertsitat Autonomoa, Leioako Askartza, Master Askartza, CD Bilbao, Gasteizko Lautada, Tximistarri, Hernani eta Urbat-Urkotronik izango dira Leioarekin jardungo dutenak. Jasotako dirua Eugenia Epalza Esklerosi Anikoitzaren Fundazioari emango zaio.



Markel Alberdi.

## Urbateko igerilarien emaitza onak Tuteran

**NAFARROAKO HIRI HORRETAN JOKATUTAKO INFANTIL MAILAKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAN,** gure herriko ordezkariak oso maila onean jardun zuen eta nesken taldeak brontzezko domina eskuratu zuen 4x100 metroko errelebo proban (mutilen taldeak 4. postuan amaitu zuen proba berean). Donostian jokatu jar-

dunaldian, bestalde, Markel Alberdik lau proba irabazi zituen juniorretan: 50, 100 eta 200 libreak eta 50 metroko tximeleta estiloon. Nekane Tejedorrek 50 eta 100 metroko braza estiloko probak bereganatu zituen. Bertan izan ziren Ander Romarate (3.a 100 libreetan) eta Aitzol Arrillaga (azken honek bizkar estiloko probetan hartu zuen parte) ere.



## Olaberriaren erorketa Giroan

**LEIRE OLABERRIAK EZIN IZAN DU JARRAITU GIROAN ESPAINIAKO LASTERKETETAN** azken aldian zeraman ibilbidearekin. Garaipenak bata bestearen atzetik, Debarrena Eibarko taldearekin zazpi lasterketa irabazi ditu Italiara joan aurretik. Juanjo Sebastianek zuzentzen duen taldeak etapen bila borrokatzeko asmoa zuen Giroaren lehenengo astean, baina Ina-Yoko Teutenbergek bereganatu ditu lehenengoko hiru etapak eta aukerarik gabe laga ditu txirindulari euskaldunak. Olaberriak, gainera, lasterketa laga du erorketa batengatik.



Berrios hegalekoa da Arraterekin kontratua berritu duten gutxienetako bat.

## Liga hasiera zaila Arraterentzat Asobalen

**IRAILAREN 11-N ALCOBEN-DASEN EZ BADU IRABAZTEN, LIGA SAILKAPENEN AZKEN POSTUETAN HAS-TEKO ARRISKU HANDIA** du Arrate eskubaloitzaletako taldeak hurrengo denboraldia. Aipatutako jardunaldi horren ondoren, Bartzelona Ipuruan, Ciudad Real Quijote Arenan, Leongo Ademar Ipuruan eta Naturhouse La Rioja Logroñon izango baitituzte aurkari. Dalibor Cutura taldetik joanda eta taldearen jokoaren iparra zeinek eraman-

go duen oraindik ere erabaki barik, Arratera etorriko diren jokalariek ez dute erraztasun handirik izango euren arteko moldatze lan horretarako; edo agian bai, talde handi horiei zelan erantzuten dioten arabera. Dena dela, gauza bat bestearengatik, denboraldi amaiera errazagoa egokituko zaie Julian Ruizen mutilei, puntu beharrean baldin badaude Cuenca 2016, Fraikin Granollers eta Puerto Sagunto izango dituzte aurkari-eta.



## Denboraldi amaiera saskibaloian

**SAN JUAN TORNEOAREKIN AMAITU DA EIBARKO SASKIBALOI TALDEEN DENBORALDIA.** Torneoa hiru taldeen arteko lehia bilakatu zen, hirurak ere herrikoak; horrela, Ruibal Alquiler de Vehículos eta Katu Kale talde federatuekin batera, VL Baloncesto Eibarko beterranoek osatutakoak hartu zuen parte torneoan. Ruibalek erraz bereganatu zuen trofeoa, beterranoei 66-46 irabaziz eta Katu Kaleri (baja asko izan ziren talde honetan) 71-36 gailenduz. Bi gaitzaileen arteko lehian, azken segundotetan sartutako saskiratzeak erabaki zuen Katuk 41-39 irabaztea. Ander Mauriz izan zen torneooko jokalaria onena eta Unai Otxandiano puntu gehien lortu zituen. Bestalde, denboraldi berrirako sortu behar den nesken taldeko partaideen lana ere ikusteko aukera izan zen.



Aznar, Fombona eta Borreguero El Corte Inglés-aren aurrean ipinitako podiumean, jendearen txaloei erantzunez

## Aznarren Audi A4 Arrateko auto igoeraren palmaresean

**JOSE ANTONIO AZNARREK EZUSTEA EMAN ZUEN ETA IAZKO IRABAZLEA IZANDAKO FOMBONA IZENKIDEARI GARAIPENA OSTU ZION.** Asturiarra zen faborito nagusia, batez ere goizekoan irabazi eta gero, baina azkenean lau segundoko tartea kendu zion Aznarrek, batez ere uretarako gurpilak erabili zituelako azken honek. Raul Borreguero izan zen podiumeko 3.a turismo maila horretan, irabazlearengandik ia zortzi segundora.

CM mailakoek turismoen ia abiadura berean jardun zuten arratsaldeko fasean eta hor ere goizeko irabazleak azken sailkapeneko 2. postuarekin konformatu behar izan zuten: Pedro


Roca (Silver Car S2) izan zen irabazlea, Iñigo Martínezi aurrea hartuz, eta manga bietan 3.a izan zen Pantxo Egozkue historikoa igo zen podiumeko azken tokira. Euskal txapelketari dagokionez, Ruben Nogueiras oñatiarra (CM Silver Car) nagusitu zen erraz, Asier Mugarza eta Jon Etxeberriaren aurretik.

Escudería Eibar-ek bikain antolatu zuen proba beste behin, eguraldiak sortutako arazoei maila txukunean aurre eginez; euriak, dena dela, eragina izan zuen zaletu gutxiago gerturatzeko. Datorren urtean 40. ediziora helduko da hain izen handia duen Espainiako mendi txapelketarako baliagarria den proba.



Probaren bezperan, barixakuan, egin ziren autoen egiaztapenak. / MAIALEN BELAUSTEGI

Munduko hainbat txoko herrira ekarri dituzte aste honetako diaporamek. Martitzenean hasi eta atzora arte, Afrikako La Tradart basamortua eta Himalayako irudiak eskaini dira. Martin Bono eibartarrak, bere aldetik, Siria eta Jordaniara egindako bidaiaren irudiak erakutsi zituen atzo soinuarekin lagunduta.



**MARTIN BONO, argazkilaria:**

## “Bidaiatzeko aukera aprobetxatzen dut”

**- Siria eta Jordaniako argazkiak erakutsiko dituzu. Nolako izan zen bidaiak?**

Bidaia egiteko, hegazkin txartela hartu genuen soilik. Jordaniara heltzean autoa alokatu eta berarekin mugitu ginen. Autoa, kanping-a eta lotarako zakua izan ziren osagaiak, horrela edonon akanpatzeko; Sirian ere antzera. Bidaia polita izan zen; ez genuen denborarik galdu hotelak hartzen eta ezer. Eta dirua ere aurreztu genuen, noski.

**- Zer saiatu zara erakusten?**

Oporrak dira, argazkilaria naiz eta oporretako argazkiak ateratzea gustatzen zaizkit. Denbora nuen eta ikuspegi ezberdinak eskaintzen dituzten herrialdeak dira Jordania eta Siria, bai leku historiko, bai paisaia natural, bai basamortu, bai itsasoei dagokienez. Hori guztia eskertzekoa da argazkilaria batentzat.

**- Argazkiak bidaiak egiteko aitzakia dira edo bidaiak da argazkiak egiteko aitzakia?**

Gauza da bidaiak hainbat gauza dakartzatela beti eurekin: besteak beste, kirola (bizikletan ibili, mendiak igo, eskalada ...) eta argazkiak.

**- Zure lanbidearekin dator...**

Oporretan ere argazkiak egiten ditut. Baina tira, kirola eta argazkiez gain, motxila

eta lasaitasuna ere osagai nagusiak dira bidaietan. Batetik bestera mugitzeko, bestetik, autoak alokatzen ditugu, bizikletak erabiltzen ditugu edo autobusean goaz.

**- Urteak daramatzazu diaporamak egiten. Nolakoak izaten dira?**

Niretzat diaporamak guztiz ikusizkoak dira. Irudiak eta musika sinkronizatzen ditut eta, horrela, bidaiariaren sentsazioa jasotzen du hartzaileak atmosfera horren bitartez. Ez da off-ahotsa duen dokumentala; niretzat irudia eta soinua da diaporama.

**- Zuretzat zer da bidaiatzea?**


Gaur egunean dugun aukera, kontu asko erakusten dizkizuna, eta etxean dituzun gauzak bezalakoak baina ezberdinak ezagutzeko aukera ematen dizuna. Horrek ez du garrantzia handirik: aukera bat da eta aprobetxatu egiten dut. Gogoratzen dut egindako bidaiak erakustera txikitzen jendea diapositibekin zetorrenean (Alpeak, glaziarrek eta abar) eta pentsatzen nuen nagusitan bertara joango nintzela. Orain nire bidaiak antola ditzaket eta leku askotara joan naiteke (handik irten ez daitekeen jendearengana, adibidez). Pentsatzen dut hori aprobetxatu beharra dagoela.



## Beorlegiri buruzko erakusketa zikloa

**FERNANDO BEORLEGI ARTISTAREN INGURUKO ERAKUSKETA ZIKLOARI EKINGO DIOTE GAUR BERTAN ZARAUTZEN**, Sanz Enea kultur etxean. Uztailaren 9tik irailaren 12ra arte martxan izango den “Gogoaren pintzelkada garratzak” erakusketan artista eibartarraren lanen bilduma zabalago da ikusgai: 40ko hamarkadan lehenengo pau-

suak eman zituenetik hasita, XXI. mendearen hasieraraino, azken lanetaraino doan tartean sortutako koadroak egongo dira ikusgai, egunero, 18.30etatik 20.30etara. Horrez gain, Beorlegiri buruzko liburua aurkeztuko dute: Juan Luis Mendizabal, Rafa Castellano, M<sup>a</sup> Jose Aranzasti eta Mikel Beorlegik idatzitako liburua Juantxo Egañaren argazkiekin osatu dute.



Irailaren 17tik azaroaren 15era, berriz, Eibarrek hartuko dio txanda Zarautzi, zikloa osatzera etorriko den bigarren erakusketa batekin. Gaur zabalduko duten erakusketan baino bilduma handiagoa ikusgai izango dela aurreratu digute arduradunek. Zikloari amaiera emateko, azaroan Lizarrako Maezturen Museon egingo dute erakusketa, aurreko erakusketetako hainbat lanekin eta Nafarroarekin lotura duten beste lan batzuekin.

## Baroja Collet Biarritzen


**ATZO BERTAN ANNE BROITMAN- EK ARTE GALERIA BERRIA INAUGURATU ZUEN BIARRITZEN** eta galeriak ikusgai izango duen lehenengo erakusketa Juan Luis Baroja Collet artistaren grabatuekin osatutakoa izango da. Uztaila eta abuztuan martxan egongo den erakusketa martitzenetik zapatuta bitartean bisitatzeko aukera izango da, 10.30etatik 13.00ra eta 15.00etatik 20.00etara (8 Rue Gambetta helbidean).





## Poema emanaldia San Andreseko klaustroan

**AZKEN HIRU GAUETAN BIDAIEI BURUZKO DIAPORAMAK IKUSTEKO AUKERA IZAN DA SAN ANDRES ELIZAKO KLAUSTROAN**, Arrate Kultur Elkartearen eskutik eta gaur, berriz, udako programazioa agurtzeko antzerki irakurria eskainiko dute Maite Lorenzo, Ernesto Barrutia eta Eduardo Falces aktoreek, 22.00etatik aurrera. Zati bitan banatutako ikuskizuna izango da: lehenengo zatian hainbat autoreren poemak eskainiko dituzte, estilo ezberdinei jarraituta; bigarren zatian, berriz, Miguel Hernández poetari omenaldi modukoa egingo diote, jaio zela 100 urte betetzen diren honetan. Ikuskizunaren lehen zatian "El brindis del bohemio" (Guillermo Agirre Fierro), "Qué lástima" (León Felipe), "Cuando nace un hombre" (Ángela Figuera), "A un olmo seco" (Antonio Machado) eta "A Margarita" (Rubén Darío) interpretatuko dituzte. Ondoren, Hernándezen



"Elegía a Ramón Sije", Las nanas de la cebolla, Las abarcas desiertas, Aceituneros, El Herido eta Insomnio eskainiko dituzte eta, agur gisa, Jose M<sup>a</sup> Samaniegoren "El cañamón" irakurriko dute.

Aktoreei laguntzen Leticia Ibáñez (gitarra), Yasmin Saoud (pianoa) eta Naome Saoud (biolina) musikariek eta Alberto Toledano argi-teknikariak jardungo dute. Sarrera doan da.



Goruntz-eko partaideak  
J. Munitiz abadearekin (ezkerrean) Edinburgon.

## Goruntz abesbatza, Eskoziatik Amañara

**URTERO SAN JUAN JAIETAN EGIN OHI DUTEN MODUAN, GORUNTZ ABESBATZAKO ANDREK** egun batzuk eman dituzte Eibartik kanpora, toki berriak ezagutzen eta, nola ez, kontzerturen bat edo beste ematen. Aurten Edinburgon (Eskozia) egon dira, J. Munitiz Jesusen Konpainiako abadeak egindako gonbidapenari erantzuten. Izan ere, abadeak hainbat senide dauzka Eibarren eta, horregatik, abesbatzako kideek lehenagotik ezagutzen zuten. Munitizen ardurapeko parrokia beste bat izan arren, eibartarren bisita zela eta, espreski Edinburgoko Jesusen Bihotzaren elizara joan zen, Goruntzekoei harrera egin eta

kontzertua eskaini behar zuteneko meza esatera. Eibartarrek eskainitako programan abesti euskaldun ezagunak eta Eskoziako kanta herriko bi batu zituzten. Munitizek elizara bertaratutakoei abesbatza aurkeztu eta abesti bakoitzaren inguruko azalpenak eman zizkien eta hango jendeak oso ondo hartu zituela azaldu digute Goruntzekoek.

Eta Eskoziara egindako bidaiaren zapore gozoa oraindik ezpainetan dutela, datorren domekan Amañako Salbatore elizan jardungo dute kantuan, 11.00etako mezan, orain dela gutxi hil zen M. A. Basurko bertako parrokoa izandakoa gozoan.

## laburrak

### HIZKUNTZA ESKOLA

Uztailaren 20era arte bete ahal izango da Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialerako matrikula internet bidez. Ikasle ofizialek urte osoan eskolak jasotzeko eskubidea izango dute eta, azterketa egin eta gaindituz gero, ziurtagiri ofiziala jasoko dute. Eibarko eskolak alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa ikasteko aukera eskaintzen du eta azterketa bi izaten dira ikasturtean, ekainean eta irailean. Azterketak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera daude mailakatuta: A2, B1, B2 eta C1. Informazio gehiago eskuratzeko, [www.eoieibar.heo.net](http://www.eoieibar.heo.net) webgunean begiratu daiteke.

### ZEZENZALEEN TXANGOIA

Eibarko Pedrucho Zezenzaleen elkarteak Santanderrera txangoia antolatu du uztailaren 25erako. 50 lagunentzat toki dago eta nahi duenak Arkupe, Leo eta Zubigain tabernetan eros dezake txartela (75 euro bazkideentzat, 85 euro besteentzat). Prezioaren barruan garraioa, hamarretakoa, transbordadorea, bazkaria eta zezenketarako sarrera daude.

### ABONTZAKO ZOZKETAK

Abontzako Iturruxa Elkarteak jaietan egindako zozketak irabazlerik ez da agertu oraindik: lehenengo saria (4.045) jaietako txosnan bertan saldu zuten eta bigarrena (49.155) Ipuruako jubilatuen etxeko tabernan. Etxean txartelak dituztenei ondo begiratzeko eskatzen dute antolatzaileek.

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**Izadi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANS GROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**Egiguretarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24



## Argazkilarien lanak tabernetan

**UZTAILAREN AMAIERA ARTE ARGAZKI ERAKUSKETA BIEGONGO DIRA MARTXAN,** Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik: Depor tabernan Pedro Morak Urki foball taldeko jubenilei ateratako irudiak daude ikusgai, J.A. Palacios, Alberto Luke eta J.I. de Castro Deportiboko argazkilarien laguntzarekin prestatutako erakusketan. Eta El Ambigú tabernan Ane Ariasen "Vendimia" izenburukoak mahats-bilketarekin lotutako hainbat argazki batzen ditu.



## Bizi Letra kanpaina arrakastatsua

**AURREKO ASTEKO BARIXAKU GOIZEAN URKIZUKO PARKEA BIZIKLETA ETA LITERATURARAKO TOPAGUNE** bilakatu zen, EAEko hainbat liburutegik (Juan San Martin Udal Liburutegiak barne) herririk-herririk garatzen diharduen Bizi Letra kanpainari esker. Irakurzaletasuna indartzeko asmoari jarraitzen dion ekimenarekin bat egin zutenek, bizikleta ekologiko berezi batera igo eta ozenki irakurri behar zuten, txirindulariak pedalei eragiteko. Eibarko liburutegiak 23,6 km. lortu zituen eta bizikletaren irabazlea Jule Martín izan zen.

## Ganbara Musika Coliseoan

**MARTITZENEAN II. BIOLIN, PIANO ETA SOKAZKO INSTRUMENTUENTZAKO GANBARA MUSIKA KONTZERTUA** eskainiko dute aipatutako instrumentuen ikastaroetan diharduten 2. mailako ikasleek. Harituz kultur elkarteak, Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatutako kontzertua Coliseoan izango da, 20.00etan.


## Udako ikastaroak Markeskuara bueltan

**UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK ANTOLATUTAKO UDAKO IKASTAROEK AURRERA DIRAUTE:** ekainaren 30ean Eibarren abiatutako eskaintzak aste honetan Baionan izan du jarraipena eta astelehenetik aurrera gurrera bueltatuko dira ikastaroak, Iruñeak erreleboa hartu arte. Eibarko ikastaroen lehenengo txandak, besteak beste, Xabier Amuriza, Gotzon Carcar eta Itziar Salegi ekarri zituen Markeskuara. Uztailaren 12tik 16ra, berriz, pedagogia, psikologia, soziologia eta informatika arloko hainbat ikastaro landuko dituzte.



Arrakasta izan dute aurten ere udako ikastaroek. Argazkian, Itziar Salegirena.


## Kezkako dantzariak Tarragonara



**ASTEBURUA TORREDEMBARRA (TARRAGONA) ALDEAN EMANGO DU KEZKA DANTZA TALDEAK,** Bertako Ball de Pastorets taldeak 10 urte betetzen dituela ospatzeko antolatu duten ekitaldi-sortan parte hartzen. Bihar Kataluniako hainbat Ball de Pastorets-ek bat egingo dute eta eibartarrak bilkurako gonbidatu bereziak izango dira, Arrateko ezpata-dantzekin. Bilkuran Vendrell, Tarragona, Vilafranca del Penedés, Vilanova i la Geltrú eta Torredembarra dantza taldeek jardungo dute, makila luzeekin figurak osatzen joaten diren "ball the pastorets" (artzainen dantza) delakoa eskaintzen.


## Lambretten VII. Topaketa, poster eta guzti

**BIHAR LAMBRETTA MOTORREN VII. TOPAKETA EDO KONZENTRAZIOA EGINGO DA** eta, hainbat ekitaldi antolatzeaz gain, Lambretta Klubekoek poster berezia eman dute argitarara, Lambretta etxeak sortutako hainbat motor ezberdinen irudiekin, eta nahi duenak erosteko aukera izango du, zapatuan 10 eurotan salgai egongo baita. Egitaraua osatzen duten ekitaldiei dagokienez, ohikoa den bezala San Kristobal auzoko jaiekin bat egingo dute hainbatetan (ordutegi zehatzak agendan begiratu, 20. orrialdean).




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunak bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, JUNE, zure zortzigarren urtebetetzian. Familixa danaren partez. Ondo pasau oporretan!




Zorionak, GAIZKA, astelehenian urte bi egingo dozuz-eta. Familixaren partez.



Zorionak, NAROA, domekan 12 urte bete zittuan-eta gure neska haundixak. Etxekuen partez.



Zorionak, AITOR Ekiza Basurto, gaur 11 urte betetzen dozuz-eta. Familixaren partez.



Zorionak, UNAI Alberdi, astelehenian sei urte egingo dozuzelako. Aitta, ama, Irati eta aitxitxa-amamaren partez.



Zorionak, ELENE eta MAIDER, urtiak bete dozuez-eta. Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, ELENE gure printzesari, gaur urte bi egitten dozuz-eta. Patxo bat etxekuen partez.

## JAOTAKOAK

- Melany Ariane Ceballos Justiniano. 2010-VI-15.
- Unai Murillo Paredes. 2010-VI-24.
- Eneko Murillo Paredes. 2010-VI-24.
- Iraia Santos Pagei. 2010-VI-25.
- Iñigo Uria Azurmendi. 2010-VI-26.
- Maialen Zenarruzabeitia Gallastegi. 2010-VI-28.

## HILDAKOAK

- Demetria Hernández Herrera. 91 urte. 2010-VII-2.
- Guadalupe Expósito Díaz. 80 urte. 2010-VII-6.

## SUDOKUA

2	8					3	
		6	9				
		1		8			5
8	7		6		9		4
	1				8		
5	4		9		7		6
4			5	2			
				9	3		
	6					4	8

## DENBORAPASAK

8	1	5	4	2	9	6	7	3
9	3	7	1	8	6	2	5	4
2	4	6	3	5	7	1	8	9
5	6	4	7	3	8	9	2	1
1	7	8	9	6	2	4	3	5
3	2	9	5	4	1	8	6	7
6	5	3	8	9	4	7	1	2
4	8	1	2	7	5	3	9	6
7	9	2	6	1	3	5	4	8

AURREKOAREN EMAITZA

## horoskopoa

**ARIES**

Ez zaitez itxaroten gelditu; joan zaitez zu zeu aurretik. Bera ez da etorriko; beraz, zuk egin beharko duzu ahalegin guztia.

**TAURUS**

Ohiturak ohitura dira; eta, poliki-poliki aldatu egiten badira ere, bereari eustekak badu bere xarma. Jarraitu horrela.

**GEMINI**

Tourreko txirindularien antzera ibiliko zara, gora eta behera. Kontuz ibili, ez zaitez erori! Ea maillot horia lortzen duzun.

**CANCER**

Momentu zoragarria zuretzat. Pentsatu ere egiten ez zenituen gauzak gertatuko zaizkizu eta bereziki pozik egongo zara.

**LEO**

Ezin dituzu gauza bi aldi berean egin; beraz, pazientzia eduki eta egizu dena banan-banan. Ea horrela gauzak ondo egiten dituzun.

**VIRGO**

Ez da txantxetan ibiltzeko ueña. Egoera ez da oso ona eta edozein txantxak haserrea sor dezake zure inguruan. Kontu egizu!

**LIBRA**

Zerbaitetan sinesten baduzu, zergatik ez egin horren alde? Pentsatzen duzuna baino indar gehiago daukazu; erabili ezazu!

**SCORPIUS**

Errealitatea ez da beti bakoitzak nahi duen modukoa, baina zure esku dago hori moldatzea. Aurki izango duzu horretarako aukera.

**SAGITTARIUS**

Edozer gauzagatik kezkatzen zara. Hartu dena lasaiago. Aste honetan berri garrantzitsua hartuko duzu, baina ez zara larritu behar.

**CAPRICORNIUS**

Lasai egon zaitezke: inork ez duzu ezer esango egindako gauza txarengatik. Hala ere, hurrengorako badakizu; saiatu ondo egiten.

**AQUARIUS**

Hondartzara bazoaz argi ibili, hondar-azpikoek gustuko dituzte zure hankak-eta. Behera begira ibili badaezpada.

**PISCIS**

Dantzalekuetan inor baino trebeago ibiltzen zara. Udan jairako gogoia izango duzu; hori bai, biharamon gogorrekin!

## Barixakua 9

**SAN KRISTOBALGO JAIAK**

**19.00.-** Jaien hasierako txupinazoa eta kalejira, Orkestrarekin.

**19.15.-** Umeentzako jolasak (toka eta dardo txapelketa, scalextric erakustaldia). Txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta auzoko tabernetan.

**22.30.-** Queen superfesta, pantaila handian.

**00.00.-** Kontzertua: La Guardia.OndorenDJ Manu eta DJ Oxide Manu. San Kristobalen.

**AMAÑAKO JAIAK**

**21.30.-** Bertso-afaria, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariekin. Caserio tabernan.

**ANTZERKI IRAKURRIA**

**22.00.-** "Una noche de verano con poemas del alma" (Maite Lorenzo, Ernesto Barrutia eta Eduardo Falces). San Andres elizako klaustroan.



Antzerki irakurria izango da San Andresko klaustroan.

## Zapatua 10

**LAMBRETTA EIBAR 09.00/12.00.-**

Lambretta Eibar VII. Kontzentrazioa. Akreditazioa eta erakusketa. Untzagan. **12.30.-** Parte-hartzaileen kalejira herriko kaleetan. **13.00.-** San Kristobalera VII. Igoera.

**14.30.-** Bazkaria, Arrate hotelean.

**18.30.-** Irteera (Lambretta motorrean) eta Mutrikun bainua.

**23.00.-** Udako festa, San Kristobalگو plazan.

**SAN KRISTOBALGO JAIAK**

**10.30.-** Umeentzako marrazki lehiaketa.

**11.30.-** Haurrentzako Molto motorren kontzentrazio-lasterketa.

**12.30.-** Herri-sandiada (Aizarna parkean).

**13.00.-** Aurkezpen-kalejira: Lambretta motorren VII. Igoera.

Piskolabisa, motorren erakusketa eta sari banaketa.

**17.00.-** Erlojupeko XVII. San Kristobal Igoera.

**19.30.-** XI. Dardo Txapelketa (nagusientzat).

**21.00.-** Herri afaria.

**23.00.-** 60ko hamarkadako festa, DJ Alex eta go-goekin. **00.00.-** El Guateque de La Década-ren emanaldia.

**01.30.-** Udako Jaia DJ Alex eta go-goekin.

**02.00.-** Queimada.

**03.00.-** Txokolate-jana. San Kristobalen.

## Domeka 11

**LAMBRETTA EIBAR 10.00.-**

Irteera eskualdean zehar, hamarretakoa eta vermoutha. **12.00.-** Kalejira. **14.00.-** Agur ekitaldia.

**SAN KRISTOBALGO JAIAK**

**11.00.-** Tirolina eta ohe elastikoa.

**12.00.-** Auzoan hildakoen aldeko meza.

**12.15.-** Bakailao txapelketa (ajoarriero erara, Aizarnako parkean).

**13.45.-** 2010eko auzokideari omenaldia: Ega-Zelai baserria.

**14.00.-** Piskolabisa.

**17.30.-** Freskagarri eta gozokien banaketa.

**19.30.-** Berbena, Araba orkestrarekin.

**20.00.-** The Wolf Style hip-hop taldearen emanaldia.

**21.30.-** Jaien amaierako traka. San Kristobalen.

**AMAÑAKO JAIAK**

**11.00.-** Auzoan eta Eibarren hildakoen aldeko meza, Goruntz abesbatzaren parte-hartzaiekin.

**13.30.-** Krabelinen jubilatuentzat eskainiko den bazkarirako autobusaren irteera.

**14.00.-** Jubilatuendako bazkaria eta Miguel Angel Basurko Amañako parrokoa izandakoari omenaldia. Krabelin jatetxean (Arraten).

## Martitzena 13

**KONTZERTUA**

**20.00.-** II. Biolin, piano eta sokazko instrumentuentzako ganbara musika kontzertua. Coliseoan.



ERABARREN OSTEGIALA	DOZUEGUA LAGUNARTIA	ERABARREN OGABARRA	ERABARREN AURTORITZUA	ERABARREN AURTORITZUA

## erakusketak

– Uztailaren 9ra arte

**LAMBRETTA MOTORREN** erakusketa.

Eibarko dendetan.

– Uztailaren 30era arte

**“EGOAIZIAREN JOAN-ETORRIAK”**.

Portalea Jatetxean.

– Uztailaren 31ra arte

**“Futbol C.D. Urki Juvenil” PEDRO MORA**ren argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

**“Vendimia”, ANE ARIAS**en argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

– Abuztuaren 31ra arte

**BAROJA COLLET**-en grabatu erakusketa. *Anne Broitmanen arte galerian (Biarritzin).*

– Irailaren 12ra arte

**“Gogoaren pintzelkada garratzak” FERNANDO BEORLEGI**ren artelan erakusketa. *Sanz Enea kultur etxean (Zarautzen).*

## ikastaroak

– **Perkusio tailerra.**

Noiz eta non: **Uztailak 6, 13, 20 eta 27an**, 11.00etatik 12.30etara (umeak) eta 19.00etatik 20.30etara (nagusiak), Amandrian (Bittor Sarasketa, 2). Izen-ematea: 644387847 telefonoan.

– **Tarot Terapia Mintegia.**

Noiz eta non: **Uztailak 15, 22 eta 29an**, 17.00etatik 18.30etara, Amandrian (Bittor Sarasketa, 2). Izen-ematea: 644387847.

– **Bach Loreen Mintegia.**

Noiz eta non: **Uztailak 15, 22 eta 29an**, 19.00etatik 20.30etara, Amandrian (Bittor Sarasketa, 2). Izen-ematea: 644387847.

## lehiaketak

– **Asier Errasti Eibarko XI. Laburmetraia Jaialdia.**

Lanak aurkeztea: Urriaren 8ra arte, Pegoran. Informazioa: [www.planocorto.es](http://www.planocorto.es), [www.eibar.net](http://www.eibar.net)

– **Indalezio Ojanguren XXIII. Argazki Lehiaketa.**

Lanak aurkeztea: Urriaren 8ra arte, Pegoran.

## farmaziak

**9, barixakua**

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

**10, zapatua**

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

**11, domeka**

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

**12, astelehena**

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

**13, martitzena**

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

**14, eguaztena**

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)  
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)

**15, eguena**

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

**16, barixakua**

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

## telefono jakingarriak

SOS delak .....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas .....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren .....	902 54 32 10
Pesa .....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egunerok: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunerok: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Mendaron. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. 150.000 euro, negoziagarriak. Tel. 943-700690.
- Armagin kalean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Kalefakzioa. Sartzeko moduan. Tel. 675-700864.
- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 24.500.000 pta. Tel. 659-687736.
- Duplexa salgai Elgetan. 85 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela beheko suarekin eta bainugela bi. Berogailua. Guztiz jantzita. 180.000 euro. Aukera proposa gazte edo bikoteentzat. Tel. 685-751891.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. 160.000 euro. Tel. 636-930962 edo 649-091192.
- Pisua salgai Armagin kalean (Txaltxa-Zelai ingurua). 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta kamarotea. Iggailua. Jantzita eta berriztua. Tel. 679-668719.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai abuzturako Deban. Handia, leku onean eta merkea. Tel. 943-701394.
- Pisua alokagai Eibarko erdialdean. Logela bi. Jantzita. Tel. 672-428273.
- Calpen (Alacant) apartamentua alokagai ekaina eta uztailearako. Hondartzaren 1. lerroan. Igerilekua eta garajea. Tel. 943-171107.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- Scooter 125 motorra salgai. 3 urte. 6.700 km. Tel. 630-810099 edo 617-099029.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Jubilazioa dela-eta, jatatxea traspasatzen da Eibarko erdigunean. Aukerako prezioan. Tel. 943-207019.
- Txabola salgai, terrenoarekin. Azitaingo poligono industrialean. Berrizteko. Tel. 618-875007.
- Lokala salgai Urkizu aldean. 90 m<sup>2</sup>. Prezio ezin hobea. Deitu 17.00etatik aurrera. Tel. 606-773886.
- Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukaldea eta komunarekin. Tel. 669-293427.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

### 3.2. Errentan

- Lokala alokagai Elgoibarren, eros-teko aukerarekin. 125 m<sup>2</sup>. Lehen taberna izandakoa, soziedade bat egiteko edo biltegi moduan erabilteko egokia. Deitu 19.00etatik 22.00etara. Tel. 649-446716.
- Garajea alokairuan Urkizun. Mar-radun partzela. Tel. 609-453946.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Titulodun emakumea eskaintzen da nagusiak edo menpekotasunak dituztenak zaintzeko. Tel. 619-859032.
- Emakume arduratsua eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 691-060164.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 646-180072.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 669-230164.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 686-614201.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 671-854136.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-641609.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 629-994385.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 669-966611.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 625-992721.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-344377.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldean laguntzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 690-156040.
- Emakumea eskaintzen da erizain-laguntzaile moduan. 20 urteko esperientzia. Uztailean eta abuztuan familiarekin; bestela, interna moduan. Tel. 610-936839.
- Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak ikastolara eramateko. Tel. 615-755991.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-435056.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-274458.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 656-493864.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-147559.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Oporretan ere bai. Tel. 686-802342.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Oporretan ere bai. Tel. 675-421933.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Oporretan ere bai. Tel. 650-152866.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 628-740765.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 669-742789.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 690-359554.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 618-050902.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 685-765340.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 646-358709.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko astelehenetik ostiralera. Esperientzia. Tel. 630-268100. Manoli.
- Emakumea eskaintzen da tabernarako zerbitzari herriko jaietan eta asteburuetan. Esperientzia. Tel. 617-894103.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 620-471145.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 697-532613.
- Mutila eskaintzen da sukaldean laguntzeko, igeltsero peoi moduan eta merkantziak banatzeko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
- Neska eskaintzen da kamarera moduan, garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 657-142376.
- Mutila eskaintzen da kamarero edo peoi moduan. Esperientzia. Tel. 697-481483.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 943-171583.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, egunez zein gauzez. Tel. 645-461600.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-821678.

### 4.2. Langile bila

- Ilepaindegirako 1. mailako ofiziala behar da. Esperientziarekin. Tel. 943-530000.
- Kamarera/o behar da Maixa tabernan. Jornada erdiz. Tel. 605-908924.
- Kamarera/o behar da asteburuetarako Aldatz tabernan. Tel. 943-206143.
- Kamareroa behar da terrazarako. Tel. 943-701207.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Errefortzu klaseak emango nituzke uztailean: Matematikak, Fisika, Kimika... Tel. 620-197174.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Ilepaindegiko gailu eta produktuak salgai, jubilazioa dela-eta. Sekadorak, silloiak, plantxak... Tel. 943-207630. M<sup>a</sup> Carmen.

### 4.2. Eman

- Txintxilla kume bi oparitzen ditut, kaiola eta guzti. Tel. 605-772606.

# MGEP

MONDRAGON GOBERRAZA POLITEKNIKOA

www.mondragon.edu/mgep  
e-posta: amianon@eps.mondragon.edu  
Tel: 943 71 21 91

## Oñati gestio heziketa

www.mondragon.edu/empresagintza  
e-posta: gestioheziketa@gmail.com  
Tel: 943 71 80 09

### GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2010-2011

## Matrikulazioa

## Uztailaren 7tik 13ra arte

Lanerako gertu!


### ESKAINNTZA AKADEMIKOA

#### MGEP

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Industri Ekipoaren Mantentimendua

#### Oñati Gestio Heziketa

- Administrazioa eta Finantzak
- Idazkaritza
- Merkataritza Kudeaketa eta Marketing-a



# 7 pekatu eguzkipean

Ray-Ban VOGUE CARRERA SUNGLASSES TWIST ck Calvin Klein EMPORIO ARMANI  
POLICE ION FIZ TOUS JUSTCavalli DIVINAS PALABRAS  
GUESS Ferrari 212 arnette ALTERNATIVE

Errebal, 14 20600 Eibar  
GIPUZKOA 943 202 137  
plazaola@naturaloptics.com

  
**natural optics**  
zu zara, naturala zara

naturaloptics.com

> **klinika kortazar**

Gidabaimenak eta armabaimenak

## TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**Estaziño kalea, 8**  
**Tel. 943 70 23 78**

**BERRIA**

**T. Etxebarria, 7**  
**Tel. 943 70 23 84**



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu

**m** **bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

**Inplante eta**  
**Hortz-Estetikan**  
adituak

Bista Eder Hartz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75